

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko martxoaren 12a / 665. zenbakia



ETA GAINERA,
TELEBISTA
GEHIGARRIA

Asteon



**BASERRI AUZOEN
GAINEKO HAUSNARKETA**
URTEOTAN IZAN DEN BILAKAERA AZTERTU DUGU

ORAIN ETA HEMEN: MONTERRON ITXITA/8 • KIROLA: MARKEL BLANCORI ELKARRIZKETA/10

GREMIOEN GIDA/24

ARGAZKIA: IKER BARANDIARAN

IRAGANA GOGORATUZ



Armagintza Debagoienez

Martitzenean, martxoaren 16an,
20:30ean eta 22:30ean



**Ikusiko
duzu!**

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa



M



ESPAINIAKO
GORTEETARAKO
HAUTESKUNDEAK

14

DATORREN ASTELEHENENEAN, **MARTXOAREN 15ean**

ASTELEHENEKO Goienkaria

BEREZIA

Emaitzak • Eguneko gora beherak • Ordezkaritza iritziak • Analisi eta balorazioak • Debagoieneko datu guztiak

Erosi egunkari saltokietan edo egin zaitez harpidedun: **902 36 38 51**

KALEINKESTA/ Zer pasauko da domekan elektiñuetan?



JOSU RODRIGUEZ
Langillie



JOSEBA ARIZABALETA
Ikaslie




GARAZI ERIZ
Ikaslie



RESU LEZETA
Jubilaua



ISABEL FERNANDEZ
Langillie



PEDRO GREDILLA
Langillie

Ba ez dakit zein irabaziko dauen. Nik ez dot askorik jarraitetan, ez dot sekule botauko. Dana dala, uste dot gutxi kanbixauko dala egoerie. Iguel PP etxera juengo da, baiñe ez dakit.

Gauzek berdin jarraituko dauela uste dot. Eskumakua sartuko da barriro, eta hamen gauzek bardin jarraituko daue. PP ez bada, PSOE egongo da, baiñe bardin izengo da.

Ez dakit ze pasauko dan, baiñe uste dot egoeriek antzera jarraituko dauela. Emuten dauenez, PPK irebaziko dau. Eta PSOE badator be, bardin. Ez dau aurrera egitterik.

Españan barriro be bigotedunak irebaziko dau. Gehixengo absolutorik ez dau lortuko, baiñe gehixengue bai. Gauzak geruau eta okerrau. Eta euskaldunak beti euskaldun izengo gare.

Ba, egixe esatiarren, ez dauket idearik be ez, benetan. Neri politikie... Begittu, aurten hain desengaiñaute nau politikiekin eta politikuekin, ez dot ezta botorik emungo.

Euskadin EAJ izengo da lelengo, gero EA, PSOE ostien, Ezker Batue hurrengo eta azkena PP. Eta Espainan, zoritxarrez, PPK irebaziko dau. Iguel ez gehixengo absolutuekin, baiñe...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ESTALI BARIKO ZULOA Zarugalde eta Munar artean bizi diren zenbait arrasatearrek eta inguru horretatik autoan pasatzen diren gidari batzuek aditzera eman digute errepidean aspalditik zulo handia dagoela, eta Udalak ez duela konpondu. Haserre daude horrekin eta Udalarari lehenik eta behin hori konpontzea eskatzen diote. Ea, ba, euren eskaera betetzen den!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KULTURA / 14

ZAHARRAK / 17

Hauteskunde kanpaina

Alderdi politikoei Arrasaten egin duten hauteskunde kanpainari jarraipena egin diogu.

Margolanen erakusketa

Bost artista arrasatearrek margolan erakusketa ipini dute Arrasateko Harresi aretoan.

Psikologoari elkarrizketa

Mercedes Acera psikologoari elkarrizketa egin diogu. Berbaldi asko egin ditu Arrasaten.

ASTEKO DATUA

5

ARRASATEARRREN MARGOLAN ERAKUSKETA

Gaurtik, egubakoitza, martxoaren 28ra arte, bost artista arrasatearrek margolanak izango dituzte erakusgai Harresi aretoan. Guztiak olioak dira, eta denetarik margotu dute.

BESTE EKESANA

“Arrasateko kaleetan barrena egin dut neguko igande arratsalde honetan eta, oso jende

gutxiarekin gurutzatu banaiz ere, zinez, ez diot inori euskaraz aditu. Ezta haurrei ere euren jolasetan; argota gaztelaniazkoa nahiago zuten, antza. Eta sentsazio mingots batekin etxeratu naiz (...). Nola da posible, azken 40 urteotan hainbeste diru eta esfortzu inbertitu ondoren, euskaraz erabat hezitako belaunaldiak beste hizkuntza batera jotzea kideen artean komunikatzeko? Lagun batek esaten dit euskarak parekotasun handia duela erlijioaren eguneko egoerarekin: umeek eta zaharrek praktikatzan dute. Bada, ez dakit oso zuzen dagoen, ume franko ikusten baititut giroak erdaraz egitera 'behartuta'...”

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
'ARGIA' / 2004-03-07

HERRITARREN BERBAK / Antxon Mendizabal



Frankismoa, apartheid eta hauteskundeak

Frankismoa, Hitler, Mussolini eta Salazarren antzeko adierazpen historiko propioa izan da. Bi ezaugarri ditu nagusi: barneko zein kanpoko herrien aurrean nazionalismo inperialista bata; norbanako eta gizatalde eskubide demokratikoen ukapena beste. Hitler, Musolini eta Salazar derrotatuak izan ziren. Baina Frankoren heriotzarekin “hausturarik gabeko” erreforma baten bitartez betiko agintariak mantenduz, frankismoa “demokratizatu” egin zen. Horretarako botere faktikoei inposatu zuten autodeterminazioaren eskubideen debekua eta Hego Euskal Herriko zatiketa. Horrela, erreforma demokratikoan txertatu ziren alderdi berriek frankismoaren edukia onartu zuten. Eta jarraipenerako bi osagarri nagusi ditugu. Kolaborazionismoa lehena, frankismoaren zapalkuntza herritarrek normala bezala kontsidera zezaten.

Mendekotasunaren kultura politikoa eta etikoa bigarrena, erresistentzia ezarekin bakea identifikatzen duena.

Milurtekoaren hasieran frankismoaren edukia bizi-bizirik dago. Haren nazional-inperialismoa eta ezarritako eskubide demokratikoen

“Gaur egun frankismoaren edukia bizi-bizirik dago: nazional-inperialismoa eta eskubideen ukapena”

ukapena. Laborategi kontrainsurgente honetan Hego Afrikan aplikatutako apartheid, disidentzia osatzen duten herritar ororen atal dinamikoari aplikatuko diote. Frankismoan bezala, Espainiako herritarrek egungo

zapalkuntza normalak direla kontsidera ditzaten, betiko kolaborazionisten eta mendekotasun kulturaren laguntza behar dute derrigorrez. Herri zapalduen erresistentziarako eskubidea ukatzea da helburu. Hori da hauteskunde hauen esangura. Eskuma frankistak edo ezker frankistak eskuratu du boterea. Biak frankismoaren babesean, biak inperioaren logika berebean. Guretako antzerako edo berdinak.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaiñzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 13**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 14**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 15**
Irizar, Ercuín 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 16**
Amezua, Santa Marina 32. ... 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 17**
Español, Araba etorb. 14. 943 79 18 65
- EGUENA, 18**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 19**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00
Igalatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako ebexa 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan... egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINITZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubiilagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza ... 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- San Joan parroikia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- San Andres eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)
- Domeka**
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
- San Isidron (euskaraz)**
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
- Domeka**
12:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parroikia**
Zapatua
19:00 (elebiduna)
- Domeka**
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ZIAR-OLA ELKARTEA
Etzi, domeka, Ziar-Ola elkarteak batzar orokorra egingo du, 12:00etan. Besteak beste, presidentea aukeratuko dute.

1940KO EMAKUMEAK
1940an jaiotako emakumeek bilkura egingo dute martxoaren 27an. 14:30ean, bazkaria izango dute Musakola Hostalean. Izena eman Hiren edo Begoña lurrindegian martxoaren 20a baino lehen, eta 15 euro ordaindu.

IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA
2004ko trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak martxoaren 5etik apirilaren 30era ordain daitezke, borondatezko epean. Epe horren ostean, %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

LURRALDE ZATIKO PLANA
Eguaztenean, hilaren 17an, Debagoieneko lurralde zatiko planaren —ingurumenari hurbilketa kritikoa— gaineko berbaldia egingo dute Monterronen, 19:30ean. Hilario Manzanedo izango da hizlaria. Mondrauetarrak taldeak antolatu du.

'DIVINAS' IKUSKIZUNA
Etzi, domeka, Oihulari Klown taldearen *Divinas* ikuskizuna, Amaian.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETAK
AED elkarteak urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. Iazko irabazle-en lanekin osatutako liburuxka eskuragarri dago AEDn. Gura duenak jo dezala bertara hartzera.

'BERRIA'-REN AKZIOAK
Berría egunkariaren akzioak salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Ercuín B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Ercuín A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN


Aurkikuntza interesgarriak San Juan elizan

San Juan eliza berriztatzen zebiltzala, aurkikuntza interesgarriak egin zituzten. Eliza azpitik ehunka hezur atera zituzten. XVI. eta XVIII. mendeen artean ehortzitateko arrasatearren hondakinak ziren, garai hartan elizaren behealdea kanposantu moduan erabiltzen zutelako.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Galdara"



Burdingintza, kobrezko galdaria. —Galdara haundi baten egosten zan artua eta esnia.

GORKA ORTEGA

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Hauteskundeen biharamuna irratian

Astelehen goizean hauteskundeen gaineko saio berezia egingo dugu herriko irratian. Arrasaten hauteskundeek utzitako emaitzak gainbegiratu dugu, eta iritzia eskatu dugu. Hainbat alderditako hautagaiekin egingo dugu berba, eta arrasatearren iritzia ere jasoko dugu. Domekan, berriz, Goiena Telebistak hauteskundeak direla eta zuzenean egingo duen saioa eskainiko dugu irratiz. 20:00etan egingo dugu bat Goiena Telebistarekin.

Haitiren gainean Marga Garmendiarekin

Marga Garmendia aretxabale-tarrarekin egin dugu berba Haitin bizi den egoeraz, Erta-merikako herrialde hartan bizi da eta Margaren ahizpa, duela hamazazpi urte. Elkarrizketa zapatu eta domeka goizean errepikatuko dugu. Horrez gain, besteak beste, Edorta Agirrek erosten dugun arraina freskoa den edo ez zelan jakin azalduko digu. Leire Okarantza abokatuak, berriz, epaiketetan lekukoek zein betebeharrak duen kontatuko digu.

HAUGIROA!

MINIMOA Astelehena, 1	-3 °C
MAXIMOA Martitzena, 2	19 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	7,1 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 3	15 °C -3 °C - Umi
Eguena, 4	14 °C -1 °C - Umi
Egubakoitza, 5	19 °C 3 °C 4,4 Umi
Zapatua, 6	10 °C 7 °C 2,3 Umi
Domeka, 7	12 °C 5 °C 0,4 Umi
Astelehena, 8	12 °C 0 °C - Umi
Martitzena, 9	15 °C 0 °C - Umi

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ZAPATUA
10:00 Asteko albisteak.
10:15 Asteko elkarrizketak: Marga Garmendia Haitiko egoeraz, Leire Okarantza epaiketean inguruan, Edorta Agirre sukaldaritzaz...

DOMEKA
10:00 Asteko albisteak
10:15 Asteko elkarrizketak

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazinaz: elemerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazinaz
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazinaz
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean: Jasone Osoro

EGUENA
19:10 Noraezean

ASTEABIHITZETAN

Maiatzerako berreskuratuko dute AKEI

Arrasateko Udalak, Debagoieneko Mankomunitateak eta ingurumen jardueretarako Ihobe elkarte publikoak hitzarmena sinatu dute Akeiko zabortegian kutsatuta dauden lurrak berreskuratuko. Lehenengo eta behin, hango instalazio guztiak lekuz aldatuko dituzte. Meatzerrekara eramango dituzte, Ceramicas Omu enpresaren ondora. Landare zatikien zerbitzua, berriz, Mojategiko lurretara eramango dute. Apirilaren 31 baino lehen egin beharko dituzte lanok. Eta horren ostean hasiko dira erraustegi inguruko lurrak berreskuratzen.

Genero indarkeriaren kontrako bilkurak

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak kale agerraldiak egingo ditu hilero, genero indarkeriaren barruan, emakumeek jasaten dituzten erasoak salatuko. Datorren hilean hasiko dira ekimenarekin. Eraso mota horiek sarri gertatzen direla eta hartu du protesta ekimenak egiteko erabakia Emakumeen Kontseiluak. Eta orain arte moduan, halako eraso bat gertatzen denean egin behar, erabaki dute hilero egingo dutela kale agerraldia, modu horretan salaketa eraginkorragoa izango delakoan. Hala, dagoeneko zehaztu dute aurreneko kale agerraldia: apirilaren 5ean izango da, Herriko Plazan, 19:00etan.

Irisgarritasuna lantzeko dirulaguntzak

Herrian irisgarritasuna hobetzeko lanak egiteko dirulaguntza eman dio Eusko Jaurlaritzak Arrasateko Udalari. 2003ko dirulaguntza bat da. Guztira, ia 22.000 euro eman dizkio. Hain zuzen ere, Erguin auzoa berririntzeko egindako lanengatik da kopuruaren zati bat (2.113,89 euro), eta alde zaharreko zati batzuetan zoladura labainkorra aldatzeko egin dituzten lanengatik da beste zatia (ia 20.000 euro).



EKIN elkartea Topagunean sartuko da

Euskara Elkartearen Elkargoarekin elkarlanean ibiltzeko, Ekin Emakume Elkartea Topagunean sartuko da. Hala erabaki dute urteroko batzarrean. Horrez gainera, jakinarazi zuten 2003an aurreikusitako asmo guztiak bete egin dituztela eta horrek indarra ematen diela aurrera egiteko.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Hauteskundeen beste alde bat

Bai, badakit, etzi, domeka, Espainiako Estatu-ko hauteskundeak egingo direla, baina ez dut horren gainean luze idatzi gura. Hau irakurtzen egongo zarenerako hausnarketa denbora izango da, eta horretan utziko zaituztet, hausnartzen. Gainera; jadanik heldu samarrak gara eta dagoeneko hamaika baino gehiago ikusitakoak

gara. Zer dagoen badakigu eta bakoitzak izango du argi zer gura duen, edo zerk merezi duen.

Lagun bat daukat gogoan. Domekan eskola baten egon beharko du hauteskunde mahai baten. Berak ez zeukan halakorik egiteko asmorik, baina behartu egin dute, eta ez dauka beste aukerarik. Halako asko eta asko egongo dira, milaka.

Batzuek aukeraketa hori oso demokratikoa dela esango dute, baina hori baino premia demokratikoago gehiago ditugu, benetan garrantzia dutenak eta haiei ez die inork erreparatzen.

Inor behartu behar, diru premia dutenekin eta mahaian egoteko prest daudenekin zerrenda bat egin beharko lukete. Eta zerrenda horretakoekin zozketa egin beharko lukete. Denondako hobeto izango litzateke.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

MARTXOAREN 8AREKIN LOTUTAKO HAINBAT EKITALDI EGIN DITUZTE

Urtero moduan, Emakumearen Kontseiluak hainbat ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8aren inguruan. Zapatuko emakumeen azoka arrakastatsua izan zen, eguraldiak lagundu ez zuen arren. Bertsolariek behintzat lagundu zuten giroa berotzen. Astelehenean, kale agerraldia egin zuten, eta oso jendetsua izan ez

zen arren, geroago eta lagun gehiagok esku hartzen dute, gizonzkoek eta emakumezkoek. Hori baita berdintasunaren aldeko giltza, biek esku hartzea. Eguaztenean, Emakumea eta inmigrazioa leloa zuen berbaldia egin zuten Emakume Txokoa, eta etzi ikusizuna egingo dute Amaia antzokian. /I.B.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Monte
taberna

Maialako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ELKARRIZKETA

ANTON GARATE ETA FELIX TROJAOLA/GESALIBARKO ERRETIRATUAK

“Baserrian egunero egon beharra dago, eta hori guztia ez dago behar bezala ordainduta”

IKER BARANDIARAN

Arrasate asko aldatu da azken urteotan. Are gehiago, baserri auzoak. Gesalibarko bi erretiraturarekin egin genuen hitzordua, Anton Garaterekin eta Felix Trojaolarekin. Auza bizi arren, fabrikaren lan egin dute.

Non jaio zineten? Eta non egin duzue bizimodua?

Felix: Ni Gesalibarko Etxebarri baserrian jaio nintzen. Gero, Mikelete etxean bizi izan nintzen. Eta orain, Arrasaten bizi naiz, baina egunero etortzen naiz Gesalibarrera.

Anton: Ni Gesalibarko Aduan, Mikelete etxean jaio nintzen. Gero, etxe hori Felixen familiak erosi zuen, eta aspaldidanik Garate etxean bizi naiz, Gesalibarren.

Mutikotan, egiten zenuten lanik baserrian?

Felix: Bederatzi anai-arreba izan gara, eta ni azkenurrekoa. Zorte handia izan dut. Garagartzako eskolan ibili nintzen, eta hiru urtean San Viatorren ikasi nuen. Baina baserrian lan handia zegoen: astoarekin esnea saldu, ganadua zaindu, ortuko gauzak saldu... Eskolatik irten eta laguntzera joaten nintzen.

Anton: Gu zortzi anai-arreba izan gara, eta ni gazteena. Guk ez genuen baserririk. Ortuak bakarrik egin dit lan.

Arrasaten ikasi eta lan egin duzue. Bizimodua Gesalibartik kanpo egin duzue?

Anton: Ez, ez, bizimodua Gesalibarren egin dugu. Edoze lan ere, egia da bai lehen eta baita orain ere, edozein eroketa egiteko Arrasatera joan behar dugula. Gu mutikoak ginenean, Gesalibarren Ugalde taberna besterik ez zegoen. Orain, elkarteak daukagu.

Felix: Urte askoan Aramaio-tik Arrasatera autobusa egon zen, eta Gesalibarkoek asko erabiltzen genuen. Aramaio-tik langile mordoak Zerrajerara eta Elmara joaten zen, eta guk Arrasatera joateko baliatzen genuen.

Non egin duzue lan?

Anton: Soldadutzan sei urte eta erdi egin nituen. Eta soldadutza bukatu ostean, tailer txiki baten ibili nintzen, eta 38 urterekin Zerrajeran hasi nintzen. Han, 7 urte egin nituen. Udalean zinegotzi izan nintzen, sindikatuen ordezkari. Eta gero, Fagor Arrasaten hasi nintzen lanean, erretiratu nintzen arte.

Felix: 15 urterekin arotz hasi nintzen. Bospasei urte egin nituen horretan, eta gero Zerrajeran hasi



IKER BARANDIARAN

nintzen. Handik Ulgorrera joan nintzen, eta Fagor Garagartzan nabilela erretiratu nintzen.

Behin erretiratu, zer egiten duzue aisialdian?

Felix: Nik, gaur egun, Muna-rran lo eta bazkaldu egiten dut, baina egunero Gesalibarrera joaten naiz. Ortuak eta txabolatxoak dauzkat, untxiakin eta oiloekin... Oso gustura ibiltzen naiz. Erretiratuak gauzak egiten jarraitu behar du. Entretenitza derrigorrezkoa da. Arrasateko Portaloian egotea ez da erretiratuen kontua.

Anton: Ni ez naiz ortuan ibiltzen. Horren ordez, arrantzalea, ehiztaria, eta ondo eta sisa bilatzailea naiz. Nik ere ez daukat aspertzeko astirik.

Aukeran edukiz gero, zer hartuko zenukete, baserriko ala fabrikako lana?

Felix: Baserria oso gustuko dut, baina kalekoa bizimodu errazagoa da. Ez dago laguntzarik baserrian ibiltzeko, eta baserria oso gogorra da. Fabrikako lana aukeratuko nuke.

Anton: Orain baserrian ibiltzea errazagoa da. Traktoreekin eta alde ona dago. Lehen, idiekin

“Gustuko dut baserriko bizimodua, baina kalekoa errazagoa da”

FELIX TROJAOLA

“Baserriek ez zieten anai-arreba guztiei jaten ematen, eta fabrikek bai”

ANTON GARATE

“Garagartzan erretiratuendako ortuak ipintzea oso ideia ona da”

ANTON GARATE

ibili behar. Gau erdian ohetik jaiki eta mendira igo behar. Nik ere gurago dut fabrika.

Entzungo zenuten Udalak Garagartzan erretiratuendako ortuak ipini gura dituela...

Felix: Bai, niri oso ideia ona iruditzen zait, baina agian, erretiratuak luzarotan Garagartzaraino joanda, nekatu edo asper-tu egingo dira.

Anton: Gure adinekoendako ez horrenbeste, baina erretiratu berri direndako oso ideia ona da. Baina ikusi behar erretiratuek zelan erantzuten duten.

Biok jaiotzez eta bihotzez Gesalibarkoak izanda, auzotarrok zer-nolako harremana izan duzue ospitaleko mojekin?

Felix: Auza ardurak eduki zituzten askok mojekin egin zuten lan. Horregatik ez die ia inork mojei aurka egin. Nik, auzo alkate izan nintzenean, mojekin hainbat borroka izan nituen. Gainera, euren mugarriekin auzoa itxita dute.

Anton: Beti gure gainetik egon direla, eta agintarieki guri baino gehiago lagundu dietela. Eskatu duten guztia eman diete.

Udalaren aldetik Gesalibarko ahaztuta egon dela uste duzue?

Felix: Arrasateko Udalak baserri auzoak, mendi-pistak, eta abar oso gutxi zaindu ditu, eta bakarrik Gesalibarren. Oso lan eskasa egin du. 70eko hamarkadan Eugenio Auzmendi Gesalibarko auzo alkatea izan zen, eta hark auzoaren premiak aldarrikatu zituen. Hark eraman zuen Iberduero auzora, baserrietako pistak zabaldu zituen, ordura arte gurdi bideak zeudelako. Orduan hona lan handia egin da, eta Gesalibarko auzolana eredu garria izan da. Gauza horiek guztiak Auzmendi esker lortu ditugu, baina auzotarrek lan handia egin dute. Hori ezin da ahaztu.

Anton: Udalak ez du erraztasunik izan gura beste laguntzako. Gainera, Debagoienara Gipuzkoako Aldundiko dirulaguntza gutxi heltzen dira, eskualde hain betidanik ahaztuta eduki dute.

Arrasaten industrializazio handia egon da, eta batzuek diote hemengo baserriek eta auzoek kalte egin diela. Hala da?

Anton: Ez dut uste. Baserriek ez zuten anai-arreba guztiendako jatekorik ematen. Eta fabrikak ondoan egoteak baserrietarrei on egin diela uste dut.

Felix: Fabrikak kalte egin beharrean, baserriek eta baserrietarrei lagundu egin die. Fabrikak baserriendako laguntza handia izan dira, beste gauza batzuetan kalte egin dieten arren.

Zuen ustez, baserriko bizimoduak badu etorkizunik?

Felix: Nik uste dut makal dagoen arren, hain txarto ez dagoela eta laguntza jasotzen badu, etorkizuna izango duela.

Anton: Horretaz bizi izateko da erraza izango, ia laguntzarik ez dagoelako. Horiek egongo balira, lagun gehiago geldituko lirateke baserrietan. Gurago dago fabrikaren lan egin, soldatu hiltzaile jaso eta askatasun handiagorik bizi. Baserrian egunero egon beharra dago, eta hori guztia ez dago behar bezala ordainduta. Nik ez diot etorkizunik ikusten. Dirua bakarrik ez, bideak hobitu behar dira, traktorea erostea lagundu...

Eta badago nahiko lurzoru azpiegitura asko egin gura duzute: AHT, autobidea...

Anton: Gauza horien premia egongo da, hala badiote. Nik ez dakit, baina inguru hau zelan gure dituzte behar den ez zait batere gaitzatzen. Dagoen moduan utzi dezate, dena hondatu behar dute. Gainera, AHT merkantziak eramateko dela badiote, zerrajeran egin gura dute hainbeste autobidea? Dakienak azal dezala!

Alderdiak lan eta lan, azken orduak ahalik eta ondoen aprobetxatu guran

UBANE MADERA

Dagoeneko ia isildu dira alderdi politikoetako kideak biharko hausnarketa-egunari lekua utzita. Orain, domekara begira daude guztiak. Edozelan ere, ez dute denbora alferrik galdu, eta oraingo astean ordezkari askok bisitatu dute Arrasate.

Gogor dabil PSE-EE alderdia hauteskunde kanpaina egiten. Egubakoitzean (hilak 5), besteak beste, Elvira Cortajarena diputatu ohia eta Antzuolako zinegotzia izan zen azoka txikian arrosak banatzen, eta jende askok egin zion kasu, gainera. Eta astelehenean Mondragon hotelean egin zuten ekitaldia. Besteak beste, Jesus Egiguren izan zen. Esandakoen artean, demokrazia indartzearen eta berritzearen alde egin zuen. Domekako emaitzekin lotuta, berriz, itxaropentsu azaldu ziren sozialistak.

BERGARAKO EKIMENAREN ALDE

Bestalde, zenbait gaztek deituta manifestazioa egin zuten bari-kuan. Gazteen eskubideak defendatu zituzten. Esan zuten Euskal Herriko gazteria dela gehien zapaltzen eta torturatzen duten kolektiboa. Autodeterminazioaren alde egin zuten. Bidean, Espainiako bandera erraldoi bat apurtu eta zeharkatu zuten manifestariek. Eta San Frantzisko Xabier ikastolatik balio gabeko boto erraldoia zintzilikatu zuten, Bergarako Ekimenaren aldeko botoa, hain zuzen ere. Era berean, atzo, eguena, Arnaldo Otegi Arrasatera zen etortzeko.

EZKER BATUA SEBER ALTUBEN

Ezker Batuaren aldetik, Patxi Coira, Oskar Matute eta Antton Karrera etorri ziren egubakoitzean Arrasatera. Seber Altubena ibili ziren gozokiak, perteginak eta propaganda banatzen. Besteak beste, Patxi Coirak esan zuen Ezker Batua dela egia esaten duen alderdi bakarrenetarikoa. Lastertasun Handiko Trenaren eta zaborren erraustegien kontra egin zuen, eta gaineratu zuen Gipuzkoak behar duela ordezkariak Madril. Era berean, PPren aurrean, Ezker Batua dela benetako alternatiba ere gaineratu zuten.

ARALAR-ZUTIK MONTERRONEN

Birritan etorri dira oraingo astean Aralar-Zutikeko kideak, euren kanpaina militantearekin jarraituz. Batetik, etorkinen gaineko prentsaurrekoa eman zuten martitzen goizean. Jakinarazi zuten indarrean sartu berri den Atze-



Jesus Egiguren PSE-EEko bestelako kideekin, Mondragon hotelean.



Zenbait gaztek manifestazioa egin zuten eta balio gabeko botoa eskatu.



Ezker Batuko Patxi Coira, Antton Karrera eta Oskar Matute izan ziren Arrasaten.



Aralarrek hitzaldia egin zuen Monterronen; Xabier Sarasua eta Pilar Etxaniz izan ziren.

rritartasun Legearen kontra dagoela Aralar-Zutik, gizalegea ukatzen duelako, eta, oro har, lege horrek etorkinen kontra egiten duelako. Bestalde, Monterronen ere izan ziren martitzenean, Pilar Etxaniz eta Xabier Sarasua izan ziren hitzaldia ematen. Oro har, elkarriketaren alde, autodeterminazioarako eskubidearen alde eta eraldaketa sozialaren alde egingo dutela adierazi zuen Xabier Sarasuak.

EAJ-REN ESKUTIK, EGIBAR ETA IMAZ

Bukatzeko, Euzko Alderdi Jeltzaleko ordezkariak eguaztenean izan ziren Arrasaten. Besteak beste, Josu Jon Imaz, Joseba Egibar, Jose Juan Gonzalez de Txabarri, Juan Maria Juaristi eta ibarreko alkateak izan ziren ekitaldian. Euzkadi Buru Batzarreko buruzagi Josu Jon Imazek esandakoen artean, herri honetan indus-

triai duen garrantzia aipatu zuen, esanez, industria lehiakorra behar dugula, eta horretarako azpiegiturak garatzea beharrezkoa dela: tren, errepideak... Salatu zuen azpiegiturak egiteko garaian estatuak ahaztu egin gaituela.

DOMEKAN IKUSI BEHAR

Orain, alderdi politiko guztien esanak eta asmoak entzun eta gero, herritarrek izango dute azken hitza etzi, domeka. Arrasaten, botoa emateko 33 mahai ipiniko dituzte, ohiko lekuetan, sei eskolatan, hain zuzen ere: Ferixalekuan, Erguinen, Santa Marinnan, Musakolan, Bedoñaben eta Jokin Zaitegin. Betiko moduan, 08:00etan eratuko dituzte mahaiak, eta 09:00etatik aurrera eman daiteke botoa. Hain zuzen ere, iluntzeko 20:00ak arte izango da botoa emateko aukera.



Besteak beste, ibarreko alkateak izan ziren EAJren ekitaldian.

INGURUMENA/ Monterron parkeko sei haritz gaixo daude

Monterron itxi egin dute behin-behinerako, zenbait zuhaitz gaixo daudelako

UBANE MADERA

Monterron parkea itxi egin dute. Eta itxita egongo da datozen 20 egunotan, aurreikuspenen arabera. Kontua da zenbait zuhaitz gaixo daudela eta bota egin behar dituztela. Hala, hori egin arte itxita segituko du parkeak, arriskuak saihesteko.

Arrasateko lorategiez arduratzen den CESPAn enpresa Monterrongo zuhaitzen egoera aztertzen dabil azkenaldian. Orain arte haritzak aztertu dituzte. Eta Udalari aurkeztutako txostenaren emaitzek erakusten dutenez, haien egoera ez da batere ona. Are gehiago, sei haritz gaixo daude. *Cerambicidos* izeneko intsektu motak eraso egin die azken urteotan, eta barrua jan die zuhaitzei, hustu arte. Horren ondorioz, zuhaitzek egonkortasuna galdu dute eta edozein momentutan jausi daitezke. Eta hori gertatu baino lehen, Udalak erabaki du zuhaitzok botatzea.

Gauzak horrela, eta kontuan hartuta otsailaren bukaera aldera haritz handi bat jausi egin zela, Udaleko teknikariek erabaki dute Monterron ixtea, harik eta botatzea erabaki dituzten haritzak bota arte. Herritarrendako sor daitezkeen arriskuak saihestea da helburua. Garabi berezi bat ekarri behar dute lanok egiteko. Pare bat aste barru ekarriko dute makina Arrasatera. Hortaz, aurreikuspenen arabera, 20 egunez egongo da itxita Monterron parkea, martxoaren 29ra arte, hain zuzen ere.

ZUHAITZ IKUSGARRIAK

Oso antzinakoak dira bota behar dituzten haritzak; parkea bera zabaldu zuten garaioak (XVIII.



AMAGOAIA LASAGABASTER

Monterrongo zenbait haritz barrua jan eta hustu egin die *Cerambicidos* izeneko intsektu motak.

Haritzak erortzeko arriskuan daude; horren ondorioz, Udalak erabaki du bota egingo dituela

mendekoak), Arrasateko Udaleko teknikariek jakinarazi diguten. Zer esanik ez, oso handiak dira, 15-30 metro inguruak. Hortaz, botatzen dituztenean, igarri egingo dugu haien falta. Hala ere, teknikariek esan digute zuhaitz mordoa dagoela Mon-

Garabi berezi bat ekarriko dute zuhaitzak botatzeko; bi aste barru-edo ekarriko dute

terron parkean, ehunka. Izan ere, parkea San Kristobaleraino hedatzen da.

Bota behar dituzten haritzetako bi parkearen beheko aldean daudela jakinarazi digute, eta gainerakoak, gorago, San Kristobal aldera. Guztira, ia

Haritzak oso antzinakoak dira, Monterron parkea zabaldu zutenekoak (XVIII. mendekoak)

12.000 euroko aurrekontua dute lanok egiteko.

GAINERAKOAK AZTERTZEN

Bestalde, Monterrongo gainerako zuhaitzei dagokienez, orain haien gaineko azterketa egiten dabil CESPAn enpresa.

LABUR

Trakzio mekanikodun ibilgailuen zerga

Udalak jakinarazi du trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren ordainagiriak martxoaren 5etik apirilaren 30era arteko epean ordaindu behar direla. Hala egin ezean, ordaindu bariko ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

'Egunkaria'-ren alde protesta egiteagatik epaiketa

Egunkaria-ren itxierak oraindik ondorioak ekartzen ditu zenbaitzuek. Horixe da Xabier Jimenez arrasatearraren kasua. Kontatu digunez, *Egunkaria* itxi zutenean itxialdia egin zuten zenbait ikasleek Euskal Herriko Unibertsitatearen Leioako Campusean. Errektoreordeak ez zien itxialdia egiteko balmenik eman, baina, protesta ekimena bidezkoa zela-eta, aurrea egitea erabaki zuten ikasleek. Hala, itxialdiaren bigarren gauean, Ertzaintza joan zitzaion errektoretzarako deituta. Hala, itxialdiaren alde egin zuten. Baina bihar ramunean erabaki zuten polizia etorri arren ere itxialdiarekin segituko zutela. Eta hirugarren gauean berriro ere joan zitzaion Ertzaintza, eta ikasleak Campusetik ateratu zituen, identifikatu ostean. Xabier Jimenezek esan digunez, erresistentzia pasatzen zuten ikasleek. Aldiz, orain, haietako 39 laguni epaiketa izango duten jakinarazpena iritsi zaie. Astelehenean, martxoaren 15ean, du egunak Xabier Jimenezek, baina jakinarazi digu ez duela auzo kezteko asmorik.

Aurtengo uztailean eta abuztuan 12 ume saharar ekarri gura dituzte

UBANE MADERA

Bigarren urtez, Arrasateko Udalak Oporrak Bakean izeneko egitasmoan parte hartuko du, Euskadiko Fronte Polisarioaren Ordezkaritzak gonbidatuta. Horren arabera, Tindoufeko kanpalekuan errefuxiatuta bizi diren zenbait ume ekarriko dituzte, uztaile eta abuztua Arrasaten pasa ditzaten.

Iaz ere parte hartu zuen Udalak ekimen horretan, eta zortzi ume saharar izan ziren udan Arrasaten. Hala, ume horiek euren etxeetan izan zituzten familiariek elkarre bat osatu zuten: Arra-

sateko Sahararen Lagunen Elkar-tea NUBI. Eta iazko esperientzia positiboaren ostean, aurtun ere umeak ekartzeko interes handia dutela adierazi diote Udalari. Hala, Udalak NUBIri jakinarazi dio asmoa dela udan 12 ume saharar ekartzea Tindoufetik Arrasatera, betiere, haur horiek hartzeko beste horrenbeste familia lortzen badituzte herrian. Dagoeneko hasi da hori guztia lortzeko lehen urratsak ematen.

SAHARAR HERRIAREN EGOERA

Bestalde, Arrasateko Sahararen Lagunen Elkar-teak Saharako Tindoufeko kanpalekuetako umeak

hartzeaz gain, bestelako ekimenak egitea erabaki du. Asmoa da sahararrek bizi duten egoeraren berri urte osoan ematea, herritarren artean sentsibilizazioa indartzea eta sahararrei laguntzeko ekimenak bideratzea.

IA 500 UME

Oporrak Bakean izeneko programan Euskal Herriko udal askok parte hartzen dute. Guztira, 450 ume ekartzea da Eusko Jaurlaritzaren asmoa. Hala, hemen dauden bitartean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila arduratuko da umeen osasunaz eta erantzukizun zibilaz.



Iaz zortzi ume saharar ekarri zituzten Arrasatera, oporretan.

DIRU ESKE, BAINA KATEGORIAREKIN

Munduan ibiltzeko geroago eta prestakuntza handiagoa behar dela argi erakusten du irudi horrek. Dagoeneko ez da nahikoa soinua hartu eta kale bazterrean ipinita abestea. Hori baino maila altuagoa dute orain kaleko musikariek,

gutxienez, hiru instrumentu. Eta gainera, ez dute edozer jotzen, ez. Gure lagun errumaniarrek, behintzat, jazza eta halakoak jotzen dituztela esan ziguten. Guk Realaren himnoa entzun genien, eta oso erritmo bitxian jo zuten, kontrabaxuarekin. Majo.



ZAPATUKO AZOKAN, EMAKUMEAK PLAZARA!

Gipuzkoatik, Bizkaitik eta Nafarroatik etorri ziren emakumeak euren saltokiak Herriko Plazan ipintzera. Guztira, 53. Horietatik 16 hementara, Arrasatekoak. Eta zapatuko eguraldi tristeari aurre eginda erostera joan zirendako aukera zabala zuten saltokietan: ardi-esnea, barazkiak, ogia, bitxikeriak, gazta... Baita taloak ere. Azkenean, saltzaileak eta erosleak pozik. Baita antolatzaileak ere. Orain, gauza da azoka emakumeen eskubideengatik egin dela gogoratzea eta hori urte osoan ez ahaztea.



IKASLEEN MAKILLAJE ESKOLAN, IRAKASLEAK MODELO

Oraindik ere geratzen da hor nonbait Aratusteetako aztarnarik. Begira bestela Zahar Berriko gure lagunek bidali diguten argazkia. Kontatu digute zela joan den otsailaren 18an Aratusteetako makillaje ikastaroa egin zuten, Aretxabaletako Gemes ahizpen eskutik. Aurpegia zela margotu erakutsi zieten. Eta giro polita sortu zen Erdue-AEK eta Arrasateko Udal Euskaltegiko ikasleen artean, are gehiago, kontuan hartuta modelo lanak egitea irakasleei egokitu zitzaizela. Ez zuten ez ikasleek barre gutxi egin euren irakasleak itxura horrekin ikusita!

IKASLE ETA ERRETIRATUEN HAZIA ZUHAITZ EGUNEAN

Ehun lagundik gora batu zen egubakoitzean Garagartzan aitzurra hartu eta lan egiteko gertu. Izan ere, guztien artean, 450 zuhaitz sartu zituzten 2.000 m²-an: gereziandoak, hurritzak, lizarrak, haritzak,

gorostiak eta gurbitzak. Hala, neska-mutikoei naturarekiko errespetua erakustez gain, orain arte zelaia zena aprobetxatu, eta arazorik ezean, basotxo izango denaren hazia erein zuten ikasleek eta erretiratuek.

ELKARRIZKETA

MARKEL BLANCO/ARRASATE ATLETIKO TALDEKO KORRIKALARIA

"Espainiako Txapelketan 15 lehenen artean gelditzea espero dut"

JOKIN ETXEBARRIA

Joan den astean Ortuellan jokatuak Euskadiko Txapelketan bigarren geldituz Markel Blanco korrikalari arrasatearra. Orain, Espainiako Txapelketa du helburu, eta horretarako gogor dihardu entrenamendu lanetan. Guk aldageletan harrapatu genuen, entrenatzen hasteko prest.

Joan den asteburuan, bigarren gelditu zinen Ortuellan jokatuak Euskadiko Txapelketan; nola ikusi zenuen zeure burua?

Egia esateko, hobeto ibiltzea espero nuen, baina azken astean ezin izan nintzen ongi entrenatu elurra zela eta. Hori dela eta, suabe samar ibili nintzen.

Azkenaldian lasterketa pila irabazi dituzu; pena da txapelketa honetan bigarren gelditzea, ez?

Bai, nahiko penatuta nago. Izan ere, Lasarten Gipuzkoako Txapelketa irabazi nuen lehengo aldiz aurrekoan, eta Euskadiko Txapelketan laugarren, hirugarren eta bigarren geldituta, pena da lehen posturik ez eskuratzea.

Datorren urtean agian.

Baietz espero dut; ni neu, behintzat, gogoz joango naiz hori lortzera.

Orain Caceres aldera zoaz, Espainiako Txapelketara; zein postuan gelditzea espero duzu?


Bai, datorren astean goaz hara. Kontua da nire mailan ni baino nagusiagoak ere badaudela, eta euren kontra ibiliko naiz lasterka. Hala eta guztiz ere, lehengo 15en artean gelditzea espero dut. Joan den urtean nire mailako nagusiena nintzen eta bosgarrena gelditu nintzen. Aurten txikien artean nagoela, nagusien mailan ibiltzea espero dut.

Eta kadete mailan egingo duzu korrika, ezta?

Bai, urte honetan pasatu naiz kadete mailara. Joan den urtean infantil mailan egin nuen korrika eta aurten mailaz igo naiz, baina ni baino jende nagusiagoarekin egiten dut korrika, eta joan den urtekoa lortzea zaila izango da. Ahaleginak egingo ditut. (Barre).

Orduan, datorren astean kontrarioak astinduko dituzu. Aurten horrela bazabiltza...

Baietz uste dut. (Barre). Egia esan, ez dakit, baina ongi entrenatzen banaiz, goiko postuetan ibiliko naiz, baina datorren urtekoa oraindik urrun dago. Ez naiz Rappel, eta ezin dut etorkizuna nolakoa izango den esan. Gogoia, behintzat, badut goiko postuetan ibiltzeko.



JOKIN ETXEBARRIA

"Gipuzkoako Txapelketa lortu ondoren, pena da Euskadikoa lortu ezin izana"

Nolatan hasi zinen atletismoan? Normalean, zure adineko mutilek nahiago izaten dute futbola edo saskibaloia. Zuk ez?

Egia esan, hori horrela da, baina atletismoa ere oso polita da, nahiz eta gogorra dela ematen duen. Nik hasiera baten ere futboleko jokatzeko nuen, baina opor batzuetan, gurasoekin nengoela, lasterketa baten parte hartu nuen, eta irabazi. Aitak, hura ikusita, ea zergatik ez nintzen atletismoan apuntatzen esan zidan.

Beraz, atletismoan aitarengatik zabilta.

Bai, egia esateko, bai. Gainera, genetan daramadala dirudi, hura ere atletismoan ibiltakoa da-eta. (Barre).

"Nire ustez, harrobi nahiko ona dago Arrasaten, baina instalazioak falta zaizkigu"

Arrasateko atletismoan, harrobi ona dagoela uste duzu?

Nik uste dut orain badagoela. Orain nahiko harrobi ona dagoela uste dut. Lagun koadri-la bat gabilta entrenatzen, eta denok goaz Espainiako Txapelketara. Badago hemen, gure artean, Iñigo izeneko txiki bat, oso azkarra dena eta nahiko ongi dabilena. Zeresana emango du.

Harrobia, beraz, badago.

Bai, harrobia bai, baina hau ateratzeko instalazioak dira falta direnak Arrasaten. Entrenatzeko pista egokirik ez dago, eta nik, adibidez, entrenamendu on bat egin nahi badut Garagartza aldera joan behar dut auto artean ez ibiltzeko. Pena da, baina horrela daude gauzak.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Goma2 - Saukelu Scream	4-5
You Know! - Tomahawk	0-1
Iriztu Taberna - Dream Team	13-2
Betrayer - Speed Boys	10-1
Etixerat - Abokajarro	8-6
Lasagabaster - Rayo Aldeano	8-2
Ac Surcos - Aloña Taberna	6-2

SAILKAPENA

A MULTZOA		P	J
1. Iriztu Taberna	2	1	
2. Betrayer	2	1	
3. Etixerat	2	1	
4. A.C. Surcos	2	1	
5. Abokajarro	0	0	
6. Aloña Taberna	0	0	
7. Dream Team	0	0	
8. Speed Boys	0	0	

PARTIDUAK

MARTXOAK 13, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Etixerat - Aloña Taberna	Antola.
12:00: Iriztu Taberna - A.C. Surcos	Antola.
13:00: Dribling - Tomahawk	Antola.
15:50: At. Celaya - Rayo Aldeano	Antola.
17:00: Betrayer - Abokajarro	Antola.

MARTXOAK 14, DOMEKA. EPAILEAK

11:50: You Know! - Goma2	Antola.
13:00: Speed Boys - Dream Team	Antola.

Atzeratua: Lasagabaster-Saukelu Scream

B MULTZOA

P	J
1. Lasagabaster	2 1
2. Saukelu Scream	2 1
3. Tomahawk	2 1
4. Goma-2	0 1
5. Rayo aldeano	0 1
6. You Know!	0 1
7. Dribling	0 0
8. At. Celaya	0 0

DAGOENKO HASI DA BIGARREN FASEA

BIGARREN FASEA ISTILUEKIN HASI ZEN

Joan den zapatuan hasi zen Zaldibarko bigarren fasea. Zazpi partidua jokatu ziren eta 14 talde ibili ziren nor baino nor gehiago. Gol dezente egin ziren jokatuak partiduetan. Aipatzekoak Iriztu Tabernak Dream Team-i sartu zizkion 13 golak eta Betrayer taldeak Speed Boys-i sartutako 10ak. Bestalde, partidua polita ikusteko aukera izan zen Etixerat eta Abokajarro taldeen artean; emaitza: 8-6.

Baina joan den asteko jardunaldian ez da dena polita izan. Istiluak izan ziren partidua baten, eta horren ondorioz, You Know! taldea fidantza barik geldituko da. Ez hori bakarrik, talde horretako jokalariek batek bost partiduko zigorra jaso du eta beste batek bi partiduko, partiduan epailea iraindu zutelako eta errespetu faltagatik. Saukelu Scream taldea ere fidantza barik gelditu da, kasu horretan falta gehiegi egiteagatik; esan behar da aurrez abisaturik zeudela. Horretaz aparte, Rayo Aldeanoko jokalariek batek zorte txarra izan zuten domekako partiduan, ukondoa hautsi zuen eta.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

Mondra - Anaitasuna Preferentea. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.	SASKIBALOIA Ointxe Arrasate - Getxo Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Mondra - Martutene Ohor. Gazteak. Domekan. 12:00. Atxabalpen.	ORDIZIA - Arrasate Juniorrak. Zapatuan. 10:00. Majorin.
Dunboa Eguzki - Arrasate Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:00. Irunen.	ERRUGBIA Arrasate - Santanderko Unib. Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.
Arrasate - Real Sociedad B Ohor. Kadete. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.	ESKUBALOIA Arrasate - Hegialde Udaberri Txap. Domekan. 11:30. Musakolan.
Urki CD - Arrasate Big. Kadete. Zapatuan. 13:00. Eibarren.	Gatz Museoa - Donibane Gazteak. Zapatuan. 17:30. Musakolan.
Arrasate - Allerru Infantilak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.	Urola Lazti - Gatz Museoa Kadeteak. Zapatuan. 15:15. Ispilian.
Mondra - Iliintxa Neskak. Domekan. 09:45. Atxabalpen.	
Bergara - Arrasate Escola Arte. Domekan. 10:00. Ibarren (Aretxab.)	



JOKIN ETXEBARRIA

Aspaldian modan dago spinninga. Arrasateko kiroldegira ere gerturaten dira kirol hori egitera.

SPINNINGA

Aspaldian, Spinninga moda bihurtu da gure arteko gimnasioetan

Bizikletan ibiltzea eta gogoia edukitzea dira kirol hori egiteko behar diren bakarrak

JOKIN ETXEBARRIA

Ekintza aerobiko hori modan jarri da aspaldi honetan. Lehenengo aerobika izan zen, eta azkenaldian spinninga. Gure herriko hainbat gimnasioetan ematen dira eskolak, eta edozeinek praktika dezakeen kirola da. Bihar, zapatua, maisu titulua eskuratzeko kurto bat egongo da.

Jonhny G.-k asmatu zuen kirol hori. Estatubatuar hori txirringularia zen izatez, eta etxean entrenamendua egiten zebilela bururatu zitzaion kirol hori sortzea. Txirringulariek hain beha-

rrazkoa duten errodilloarekin lanean ziharduera, musika jarri eta musikaren erritmoaz ariketak egiten hasi zen. Horrela sortu zen spinninga. Beraz, ez dator aerobiketik, gehienek pentsatzen duen moduan, nahiz eta ekintza aerobiko bat ere baden. Monitore bat ibiltzen da azalpenak ematen, eta bizikleta gainean zabiltzala hark azalduakoa egin beharra daukazu. Ez ei da zaila, baina bai gogorra, nahiz eta inpakturik gabekoa izan eta minik edukitzeko arriskurik ez dagoen; giharretako mina agian...

Gure herrian modan jarri da aspaldi honetan kirol hori. Agian ekintza fisiko gogorra delako,

edo giro polita egoten delako, oso dinamikoa delako, edo kiloak kentzeko egokia delako... Kontua da oso modan jarri dela, eta ez da arraroa gure kiroldegietan eta gimnasioetan jendea ikustea spinninga egiten.

ZAPATUAN MONITORE KURTSOA OÑATIN

Zapatuan Oñatin izango dute hitzordua spinning-zaleek. Izan ere, Mondragon Unibertsitateak eta ibarreko kiroldegiek antolatuta lehen mailako monitore titulua ateratzeko aukera izango dute bertara gerturatzen direnek. Zubikoan izango da, goizez 09:00etan hasi eta 13:00ak arte eta arratsaldez 15:30etik 17:30era.

MENDIZEHARKO ESKIA

Isa Casado bigarren eta Leire Ezpeleta hirugarren gelditu ziren Luz Ardidenen

Eskiatzaile mondragoetarrek domekan Luz Ardidenen jokatu zuten Euskadiko Mendizeharko Txapelketa. Isa Casadoren kasuan, Euskadiko kopan dihardu, baina Luz Ardidengo txapelketak ez zuten Koparekin zerikusirik, txapelketa soila zen.

Domekako lasterketa Luz Ardiden eski estazioan izan zen. Estazioan, baina, hasierako kilometroak baino ez zituzten egin, hasi eta berehala egin zuten eta mendian gora. Ibilbideak 1.500 metroko desnibela zuen, eta lau igoera eta lau jaitsiera zituen, guztiak ere eski pistaz kanpo. Hasiera baten bi proba egon behar zuten, bata, herri lasterketa eta bestea, goi mailakoa. Azkenean, baina, denontzat ibilbide bera izan zen eta lasterketa bakarra egin zuten.

Arrasatearrei dagokienez, maila oso onean ibili ziren. Isa Casado pozik zegoen lortutako emaitzarekin. Baina ez dago gustura egiten dabilen lanarekin; azkeneko metroak luze egin zitzaizkion: azken zatia laua zen, eta helmuga muturren aurrean ikusi arren, bertara ez zela helduko sentitu zuen. Hala eta guztiz ere, Formigalen baino hobeto ikusi zuen bere burua. Leire Ezpeletak, aldiz, lasterketa ikaragarria egin zuen. Isaren atzetik joan zen denbora guztian, eta azkenean hirugarren postua lortu zuen.

XAKEA

Zapatuan irabazi ondoren, Arrasateko San Andres Xake Taldea laugarren postuan dago

Zapatuan, Arrasateko taldeak Iruñean jokatu zuen. Oraingo honetan taldea Luis Ortégak, Josu Tornayk, Txema Hernandok eta Isidro Ruizek osatu zuten eta, esan, oso erraz irabazi zutela: 0,5 - 3,5. Emaitza horrekin laugarren postuan kokatu dira lehenengo mailan. Horrek esan nahi du Ohorezko Mailara igotzeko postuetan sailkatuta daudela, baina igoera matematikoki ziurtatzeko azken txandan derrigorrez irabazi beharra daukate.

Bihar, zapatua, Arrasaten jokatu dute San Andres Xake Taldekoek, arratsaldeko lauretan. Laudioko laukotearen aurka neur-tuko dituzte indarrak, eta nahiko kontrario zaila da; beraz, nahiko partida konplikatu. Kontua da Laudiokoek irabazi beharra daukatela lehenengo mailan jarraitzeko. Bi taldeetan arrazoi ezberdinak daude irabazteko, baina biek hala biek garaipena beharrezkoa dute; horrenbestez, partida interesgarria ikusteko aukera izango da bihar.

ZIKLOTURISTAK

Debagoiena Zikloturista Taldeak beste irteera bat egingo du domekan

Joan den astean hasi zuten Debagoiena Zikloturista Taldekoek denboraldia, 48 kilometroko ibilbidearekin. Oraingo astean ere kilometro kopuru bera egingo dute. Izan ere, denboraldi hasieran ez da komeni kilometro gehiegi egitea. Oraingo honetan Oñatiko bidea hartuko dute hasieran, Udاناتik Legazpira joko dute eta Deskarga jaitsita Bergaratik bueltatuko dira Arrasatera.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

FUTBOLA

Anaitasuna taldeari irabazi, eta bolada txarrarekin amaitu gura dute arrasatearrek

Jokalariak gura lukete aurreko astekoa izatea jarraian galdutako azken partidua; Anaitasuna puntu bat atzetik dago, beraz, kontrario zuzena da

JOKIN ETXEBARRIA

Anaitasuna talde irregularra da, baina min egin dezake zapatuan Atxabalpen, etxeko taldea burua ezin jaso dabil eta. Mondra ez dabil gol asko sartzen azken partiduetan, eta horri, arrasatearrek defentsan duten kontzentrazio falta gehitzen badiogu, azkeneko bolada txarraren arrazoiak agerian ditugu.

Joan den astean, Josu Zubia taldeari defentsa lanetan falta zaien kontzentrazioari buruz ibili zen berbetan, baina erasoan duen gol falta ere aipatzea ez litzateke gaizki etorriko. Aurreko partiduan, hirugarren mailara igotzea helburua duen kontrario bat izan zuten mondragoetarrek; oraingoan, berriz, kontrario zuzen bat izango dute aurrez aurre. Garai-pena lortzeko, aurrez aipatutako akatsak zuzentzen ahaleginu beharko dute Mondra taldekoek. Zubiak taldeko lana azpimarratu nahi izan zuen aurrekoan, eta

hori da falta izan zaiona Mondrari jokatu dituen azken partiduetan.

Anaitasunari dagokionez, ez dirudi kontrario erraza denik, batik bat, Arrasateko taldeari konfiantza falta ikaragarria sumatzen zaiolako, eta bolada txarrari aurre egiteko ahalmenik erakutsi ez duelako. Baina kontuan hartu behar da arrasatearrek lehen itzulian edozein kontrario menderatzeko gauza zirela erakutsi zutela. Garai horiek berreskuratzea izan behar da mondragoetarren helburua.

'MURUA-DEPENDENTZIA'

Jon Muruak oso ondo hasi zuen denboraldia, sekulako markak lortuz: 20 partidu, 23 gol. Baina azkenaldian ez dabil fin aurrelaria, eta hori sumatu egiten du Mondrak. Taldean oso aurrelari onak daude, baina Murua beti izan da arrasatearren artean gogile nagusia, taldeko *galaktikoa*. Izan ere, *Murua - dependentzia* dagoela hasi da esaten bat baino gehiago. Baina Arrasateko taldea jokalaria bat baino gehiago da.



Jon Murua ez dabil fin azken partiduetan eta ez du golik egiten.

Ointxe Arrasate taldea, hamargarren partidua jarraian irabazteko gertu

Ez dago jaitsiera fasean Arrasateko taldea geldituko duenik. Hori ere erakutsi zuten joan den zapatuan Iruñean, bigarrenari zortzi puntuko aldeaz irabazita, eta gauza bera erakutsi nahi izango dute zapatuan Getxoren aurka.

Getxo taldea lehiaketako klasiko bihurtu da, urteak daramatza eta maila horretan. Hala eta guztiz ere, eta Arrasateko jokalari

hitzetan, Viajes Marfilekin batera fase honetako kontrario gogorrenak dira, eta zorte txarra izan dute igoera faserako ez sailkatzeko, arrasatearren antzera. Gaur egun, getxoiztarrek hirugarrenak dira sailkapenean, eta talde polita daukate, gogorra.

Eta, egia esatearren, arrasatearrek zorte txarra izan dute igoera faserako ezin izan direlako kla-

sifikatu. Izan ere, daramaten boladarekin —klubaren historian bigarren onena—, nork daki non ibiliko ote ziren orain...

Beraz, zapatu arratsaldean ibarreko saskibaloizaleek hitzordua daukate Iturripeko kiroldegian, 18:00etan.

DENBORALDIA ZORTZI JOKALARIREKIN

Hamar partidu jarraian irabazteak meritu ikaragarria dauka, eta are handiagoa taldean zortzi jokalaria bakarrik badaude. Izan ere, baja ugari izan ditu talde arrasatearrek aurtengo denboraldian; lesio ugari izan dira taldean eta, gainera, taldea utzi duten jokalariek ere badaude, lan arazoak direla tarteko. Gai horri utsiz, aipatzekoa da *Txitxo* Ziarsoloren kasua. Jokalari horrek taldea utzia zuen, baina jokoa antolatzen duen Ibanen lesioa dela eta taldera bueltatu beharra izan zuen, taldea jokalaria barik gelditu zelako.

Hala eta guztiz ere, taldean sekulako giroa dago. Bolada onaren arrazoia hori dela esan daiteke, eta jokalaria guztiak irabazteko amorrus irreten dira partidu guztietan. Argi dago bolada on honek noizbait bukatu beharra daukala, baina zenbat eta geroago, izan hobeto.



ARRASATE PRESS

Ointxeokak bolada onari eusten ahaleginduko dira zapatuan Iturripen.

FOTOKIROLA



Zapatuan Santanderren kontra

Joan den domekan, Gaztediren aurka atzeratutako partidua jokatu zuten arrasatearrek. Etxeko taldeak beharrezkoa zuen irabaztea, baina partidu txarra egin zuen, eta 12-25 galdu. Partidu garrantzitsua zen, David Jauregiren mutilak azkenak dira eta euren multzoan, eta etxean jokatu beharreko bi partiduak irabazi egin behar zituzten aurrera egin ahal izateko. Oraingo aste bukaeran, Santanderko Unibertsitatea izango dute arrasatearrek aurkari, zapatuan, 16:00etan, Garagartzako zelaietan.

ZINEMA/ Amaia Udal Antzokiko film eskaintza

Ridley Scotten azkeneko lana eta Nikole Kidman protagonista duen 'Dogville'

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, ez da zineklubik egongo, beste ekitaldi bat dagoelako. Bihar, zapatua, eta astelehenean, *Los impostores* filma emango dute Domekarako, antzerkia antolatu dute. Eta datorren egubakoitzean, martxoaren 19an, *Dogville* filma emango dute.

Udaleko Kultura Saileko arduradunak pozik daude Amaia Udal Antzokiko film eskaintzak izan duen harrerarengatik. Urtarrilean ia hiru mila lagun joan ziren Amaiara, eta otsailean kopuru horrek nabarmen egin zuen gora, lau mila lagun pasatxo joan zirenetan. Ea martxoan halako zenbaki eusten dieten!

GAUR EZ DA EGONGO ZINEKLUBIK

Gaur, egubakoitza, ez da zineklubik egongo, beste ekitaldi bat dagoelako. Bihar, zapatua, *Los impostores* filma emango dute, 19:00etan eta 22:00etan, baita astelehenean ere, 20:30ean.

Ridley Scott estatubatuarrek zuzendu du film hori. Scott oso

zuzendari ezaguna da. Hona hemen hark zuzendutako hainbat film ezagun: *Alien, el octavo pasajero*; *Blade Runner*; *Thelma y Louise*; *Gladiator*, eta beste batzuk.


Los impostores komedian, Roy eta Frank gaizkileen gaineko istorioa kontatzen du. Royk krisi latza izango du, eta horregatik ezin izango dituzte ohiko delituak egin. Psikoanalista bategana joko du, eta 14 urteko alaba daukala jakingo du. Alabak ere gaizkile izan gura du.

Filma *Matchstick men* izeneko liburuan oinarrituta dago, eta Nicholas Cage da protagonista. Cagek hainbat filmetan egin du lan: besteak beste, *Leaving las Vegas* eta *60 segundos-en*. Cagerekin batera Sam Rockwell (*La milla verde* eta *Los ángeles de Charlie*) eta Alison Lohman (*La flor del mal*) ikusiko ditugu.

Los impostores filmak 116 minutu irauten du, eta iaz estreinatu zuten, Veneziako Film Jaialdi ospetsuan.

LARS VON TRIER-EN AZKENEKOA

Datorren egubakoitzean, martxoaren 19an, zineklubean,



Dogville da Lars Von Trier zuzendari danimarkarraren azkenengo filma.

Dogville filma emango dute, 20:30ean. Lars Von Trier danimarkarrak zuzendu du. Oso zuzendari ezaguna da, *dogma* izeneko korrontearen sortzaileetako bat izan zelako. Hainbat film egin ditu, gehienak dramak: *Europa*; *Rompiendo las olas*; *Los idiotas*; *Bailar en la oscuridad*...

Dogville ez da salbuespena. Grace xarmanita gangster batzuegandik ihesi dabil, eta *Dogville* izeneko herrira helduko da. Tom-ek *Dogville*ko gainontzeko herritarrek konbentzitu ditu Grace ezkutatzeke. Hango herritarrek baietz esango dute, baina, egoera berezi horretaz baliatuta, Graceri gehiegizko mesedeak eskatuko dizkiote. Gracek sekretu beldurgarri bat ezkutatuko du.

Nicole Kidman da film horretako protagonista. *Bailar en la oscuridad* filmarekin txundituta, Kidmanek baiezkota eman zion Von Trierri. Kidman punta-puntako aktorea da, eta film ugari hartu du parte, hala nola: *Moulin Rouge*, *Eyes wide shut*, *Los otros-en*, eta abarretan. 2003an, *Dogville*-k Europako Film Onenaren saria jaso zuen.

ILUNTZEAN Julian Retegi solaskide

Eguenean, martxoaren 18an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



Ikusiko
duzu!

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaitez





Arrasaten margotzeko zaletasun handia dago.

PINTURA/Margolanen erakusketa

Bost artista arrasatearren margolanak Harresi aretoan

IKER BARANDIARAN

Gaur, egubakoitza, Arrasateko bost margolarik margolan erakusketa ipiniko dute Harresi aretoan. Bostok ere Monterrongo margo tailerlean lanean ibiltzen dira, eta honako hau euren kontu ipintzen duten lehenengo erakusketa da.

Joan den urte bukaeran, Monterrongo margo tailerreko ikasle bik euren lanak erakustea erabaki zuten. Horretarako, lagun gehiago behar zituzten, eta gutxi batzuek eman zieten baiezkua. Honako hauek elkartu ziren: Juan Ramon Zugasti, Angelines Ruiz, Beatriz Romero, Gloria Uriarte eta Jaione Ayani, hain zuzen ere.

Udaleko Kultura Sailarekin harremanetan jarri ziren eta Harresi aretoan erakusketa egiteko eskaera onartu diete. Hain zuzen ere, gaurtik (egubakoitza) martxoaren 28ra arte izango dituzte lanak erakusgai.

EUREN KABUZ EGITEN DUTEN LEHENA

Euren kabuz egiten duten lehenengo erakusketa da. Horrez gainera, urtero Monterrongo tailerreko ikasleek egiten dituzten erakusketan ere hartu dute parte, baina horietan lan bana baka-

rrik erakutsi dute. Oraingoan, berriz, bakoitzak sei bat lan jarriko ditu erakusketan. Harresi aretoaren tamaina aztertu ondoren, erabaki dute 30 bat lan erakustea komeni dela; hori baino gehiago larregi izango dela.

Hain zuzen, Monterron jaurregiko goiko solairuan margotzen dute, eta euren irakaslea Amaia Bengoa da, baina nork bere ibilbide propioa dauka. Esa-

Bost artista arrasatearrak Monterrongo margo tailerlean ibiltzen dira

Euren kabuz egiten duten lehenengo erakusketa da, eta 30 bat margolan batuko ditu

te baterako, Beatriz Romero tailer horretan esku hartu zuen lehena izan zen, orain dela 10 bat urte. Dena dela, Beatrizek berak azpimarratu digu aspaldian gutxiago margotzen duela.

ANIZTASUN HANDIKO ERAKUSKETA

Bost artiston estiloak eta motiboei erreparatzen badiegu, ez dute ezer batera. Euren esanetan, behin-behineko bilketa da. Guztiak olioak dira, baina erakusketak aniztasun handia izango du.

Beatriz Romerok, batez ere, gizon eta emakumeak, loreak eta paisaiak margotu ditu. Romerok gizon eta emakumeak margotzea du gustuko. Angelines Ruizek loreak, paisaiak eta natura hilak margotu ditu. Juan Ramon Zugastik, berriz, paisaiak eramango ditu erakusketara. Bukatzeko, Jaione Ayani gizonak eta emakumeak, paisaiak eta natura hilak erakutsiko ditu.

Bost artista horien helburua da euren lanak ezagutzera ematea, horiek jende aurrean erakustea eta lagunak iritziak jakitea. Helburu nagusia hori ez den arren, norbaitek margolanen bat erosi gura badu, egileekin berba egin beharko du. Artista horiei Harresi aretoa leku txukuna iruditzen zaie, baina esaterako Oñatikoaren alderatuz, txiki samarra dela onartu dute.

Domekan, Oihulari Klown taldearen 'Divinas' ikuskizuna

I.B.

Domekan, martxoaren 14an, Oihulari Klown taldeak *Divinas* ikuskizuna egingo du Amaia Udal Antzokian. Arrasateko Emakumearen Kontseiluak eta Udaleko Kultura Sailak antolatuta dute. 19:30ean izango da.

Domekarako, martxoaren 14rako, Emakume Kontseiluak martxoaren 8arekin lotutako egitarauaren barruan antzerki ikuskizuna antolatu du. Bergarako Oihulari Klown taldeak *Divinas* antzezlan egingo du.

Oihulari Klown taldea bergarra da, eta ibilbide luzea dauka antzokietan eta kalean ikuskizunak egiten. Azkeneko urteotan, hainbat eta hainbat lan eskaini dituzte: *Rekoloklown*, *La modelo clowntrapublicitaria*, *Molestias clownicas*, eta abar. Horrez gain, leku txikietan ipuin kontaketa egiten dituzte, eta hainbat mintegi, mahai-inguru eta antzekoetan *clownklusioak* ere egiten dituzte.

ESTREINAKO LANA

Divinas Oihulari Klown taldearen azkeneko lana da. Otsailaren 27an estreinatu zuten euren herrian, Bergarako Zabalotegi aretoan, hain zuzen ere.

Ikuskizun horren egile eta zuzendari Virginia Imaz da, aski ezaguna klown eta ipuin kontaketa alorretan. Ikuskizun horretan esku hartzen duten klownak, berriz, honako hauek dira: Virginia Imaz bera, Laura Lopez eta Txefo Rodriguez, hain zuzen ere. Hirurak hala hirurak Oihulari

Klown talde beteteranoaren kide ezagunak.

Divinas-ek 80 minutu irauten du eta helduei zuzenduta dago. Euskaraz eta gazteleraz eskaintzeko asmoa daukate, baina oraindik ez dute euskarara guztiz moldatu. Beraz, Arrasaten gazteleraz eskainiko dute.

PERTSONAIA JAINKOTIARREN KOMEDIA

Divinas pertsonaia jainkotiarren gaineko komedia da. Ama Birjinak eta Maria Magdalenak pertsonaia jainkotiarren bizitzaren berri emango diete ikusleei. Horretarako, zazpigarren zeruaren eguneroko bizitza zelakoa zen kontakutako dute.

Maria estresatuta dabil hainbeste agerraldirekin eta San Jose berriz, Maria zaintzearekin. Urtero erditu beharrak nekatuta dauka Maria. Are gehiago, Mariak dioenez inork ez zion horren guztiorren berri eman Jainkoaren semearen ama izateko aukeratu zutenean.

Lan horretako teknikariak Jose Carmelo Muñoz eta Cesar Marcos izango dira; argi teknikaria, berriz, Ana Irazustabarrena; eta eszenografiakoa, Mikel Ibartzabal.

Eszenatokia Kukuma taldekoekin dute, goma-aparrez. Eszenatoki bakarrean hainbat giro ikusteko aukera egongo da. Mariaren etxeko sukaldean gertatzen da istorioaren zatirik handiena, baina horrez gain, Jesus gurutzean agertzen denekoak eta Gabriel aingeruaren agerraldiak ere badute lekua komedia bitxi horretan. Umorezko lana da, eta parodia asko egingo dituzte.



Oihulari Klown taldeak ibilbide luzea dauka ikuskizunak egiten.

E, TXO!

**MAHAI-FUTBOL
TXAPELKETA BIONAN**

Bihar, zapatua, mahai-futbol txapelketa egingo dute Biona tabernan, 16:00etan. Izenematea doan izango da, eta zortzi sari emango dituzte: lehenari, 250 euro; bigarrenari, 100 euro; hirugarrenari, 50 euro; eta abar.

**LUDETEKA IBILTARIA
USAETXE PLAZAN**

Bihar, zapatua, martxoaren 27an eta apirilaren 3an ludoteka ibiltaria egingo dute Usaetxe plazan. 11:00etatik 13:30era, ume eta gazte-
txoek jolasteko aukera izango dute.

**BIDAIA SOLIDARIOAK ETA
BORONDATEZKO LANA**

Aisialdian hegoaldeko herrietako komunitateak eta hango gizarte-errealitatea ezagutzeko bidaia solidarioak antolatu dituzte. Horien bitartez, borondatezko lana egingo dute. Joan aurretik prestakuntza prozesua izango dute. Honako herrialdeetara joateko aukera egongo da: Brasil, Kuba, Ekuador, El Salvador, Nikaragua, Mexiko, Maroko eta Peru. Palestinara eta Venezuelara joateko bidaia solidarioak zehaztear daude.

Interesatuak apirilaren 24a aurretik eman beharko dute izena honako webgunean edo telefonoan: www.sodepaz.org edo 91 52 28 091. Hain zuzen ere, 50 euro ordaindu beharko dituzte.

**FANTASIAZKO IPUINEN
LEHIAKETA**

EHUko Arabako campusak fantasiazko ipuinen lehiaketa antolatu du. Lanak euskaraz eta gaztelaraz aurkez daitezke, ekainaren 25a aurretik. Informazio gehiago honako telefono zenbakian: 945 01 30 00.

GUREGAIK/ KONTZERTUA GAZTETXEAN

Bihar, metal eta rock gogorreko hiru talde indartsu gaztetxean

IKER BARANDIARAN

Biharko, zapatua, gaztetxeko batzarrak (AGAKOK) kontzertu berezia antolatu du. Etorkizun handia duten hiru talde gaztek joko dute: Sharon Stoner, Izaera eta Neubat taldeek, hain zuzen ere.

Bihar, zapatua, honako hiru taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean, 22:30ean: Oñatiko Sharon Stoner, Irungo Izaera eta Gasteizko Neubat taldeek.

Sharon Stoner taldea 2000n sortu zuten Oñatin, eta honako hiru lagunek osatzen dute: Egoitzek (bateria jotzailea), Mikelek (gitarra) eta Iñigok (baxu jotzailea eta abeslaria). Taldearen izenak hala dioen arren, euren soinua stonerra baino gehiago, hala xe definitzen dute: iluna, konpaktua eta sendoa.

Iaz, taldea geldi izan zuten, bateria jotzaileak Sorkunen taldean jo zuelako. Aspaldian, berriz, buru-belarri dabilta, eta CD-maketa grabatzeaz gain, hainbat kontzertu egin dituzte Potemkin talde oñatiarrarekin batera.

GASTEIZTIK ETA IRUNDIK

Beste bi talde ere esku hartuko dute. Gasteizko Neubat taldea



MIKEL AGIRRE

Oñatiko Sharon Stoner taldeak geroago eta zeresan handiagoa emango du.

1999an sortu zuten. Rock gogorra egiten dute, metal eta stoner doinuak uztartuz. Iaz Neubateko bi taldekidek Sorkunen taldean jo zuten. Horrek taldeari oztopo egin beharrean, kontzertu gehiago gaineratu zizkion, behin baino gehiagotan Neubatek Sorkunekin jo

zuen-eta. Orain dela bi urte, Neubatek CDa kaleratu zuen *Gara*-ren bitartez, baina dagoeneko lan berria grabatu du, eta kantu horiek aurkeztuko ditu Arrasaten. Are gehiago, ohiko formazioari teklatuak jotzen eta abesten duen neska gaineratu diote.

Azkeneneko taldea Izaera izango da. Irungoa da, eta zelanbait Dut eta Lisabö taldeen ildo antzekoa dauka. Post-hardcorea egiten dute: momentu lasaiak eta oso biziak uztartzen dituzte. Ospitale zaharreko gaztetxean kontzertu itzela egin zuten.

Aste Santuko irteera prestatzeko aukerak

I.B.

Hainbat eta hainbat gazte Aste Santuko oporrak prestatzen hasi dira. Horretarako, ohi baino modu merkeagoak egon badaude, eta Gazte Bulegoan horren gainera informazio zabala ematen dute.

Arrasateko Gazte Bulegoan gazteen gainera informazio orokorraz gain, beste hainbat arlo ere lantzen dituzte, eta horien arte-

an, turismoaren gainera informazio mordoa dute. Euskal Herriaren, Espainiako Estatuaren, Europaren eta oro har munduaren gainera informazioa dute eskuragarri. Hau da, munduko hainbat puntutako alojamentu merkeak, ibilbideak, zer ikus daitekeen, segurtasun eta osasun aholkuak, eta beste gauza asko.

BIDAIAZKO MODU MERKEAK

Hegazkinez bidaiatzea orokorrean garestia den arren, badira kon-

painia merkeagoak, eta Internetek aukera handia ematen du horretan. Halako hegaldiak kontratatzeke edo behintzat horren gainera informazioa jasotzeko, webgune hauek kontsulta ditzakezu: easyjet.com, volareweb.com, lastminute.com, ultimasplazas.com, viajarbajoprecio.com, eta beste batzuk. Gazte Bulegoan badute horren gainera informazio gehiago.

Interraila ere aukera polita eta merkea da mundua ikusteko.

Europa osotik merke bidaiatzeko aukera ematen du. Bidaia-sistema horrek Europa zonaka banatzen du, eta interesatuak aukeratutako zona kopuruaren eta egunen arabera ordaindu beharko du.

Garraio jakin horiek erabili barik eta aspaldiko tradizioari eutsi gura izanez gero, taldean autostopa egiteko aukera ere ematen dute. compartir.org webgunearen bitartez, autoa parteka daiteke.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxe: 943 - 71 21 40

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ESKORIATZA

Tfno 714345



ERRETEGIA

MENDIOLA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

BEHEKODENDATIK

Daniel Milan

MEMESA INDUSTRIA HORNIDURAK

XABIER URZELAI

Danielek hogeita hamar urtetik gora daroie Memesan lanien. Fabrikendako egitten daue lan, baiñe ez leuke bere lana fabrikakuagaittik kanbixauko. Memesan askatasun haundixae daukola esaten dau, eta baitte lan entreteniduaue be. Hala ta be, eguneroko lanien ez dauko asperketako astirik.

Ze falta jako Mondragueri?

Ez neuke jakingo ze esan; ez dakit aparkalekuek falta dien edo automobillek dauzen sobran.

Eta, ze dauko ona?

Herri lasaixe dala; oso gustora bizi naz hamen.

Ze falta jatzu zeuri?

Gauza batzuetarako dezisiño haundixae eukittie.

Eta, ze dauketzu sobran?

Sobran gauza gutxi dauket.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Mistic River / Sinue el egipcio / Supertramp.

Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Italiara.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Plantxetie.

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Neure emaztiakin oso pozik bizi naz, eta ez dot beste inoren biherrik.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Boligrafue.

Denpora librien ze egitten dozu?

Pasietie gustetan jat, baitte tenisien egittie be. Alabiekin egotie be gustetan jat.

Kapritxo bat.

Egun batzuk kanpuen pasetie.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Errioxa.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Gerrak diela-eta ez dala hilddako gehixau egon biher. Daukogun egoerie, baiñe, ez da hori lei-



“Industria hornidurak saltzen dittugu, eta enpresen biherrak beteten ahaleginketan gare”

duteko aproposena.

Ze lan egitten dozue Memesan?

Geuk industria hornidurak saltzen dittugu, eta enpresek dittuen biherrak beteten ahaleginketan gare.

Zeintzuk emuten daue lan haundixen: enpresek ala partikularrek?

Zorionez, enpresek. Geure salmenten %5 baiño gutxiu izengo da partikularrekin egitten dogune. Horrekin ezin izengo gitzake bizi.

Jubilauek lan haundixe emungo daue ba...

Lan apur bat emuten daue, bai. Euren lanak egitteko hona etorten die materixala edo erramintak

“Almazen barrixe jarri geuen eta enpresie haundittu egin da; oin, jente gehixau dabil lanien”

topetan, eta hamen ibiltten gaue gora eta behera. Gaiñera, prixiakin datozela esaten daue.

Ze enpresakin egitten dozue lan haundixen?

Fagorrekin. Azken baten, Fagorrek fabrika asko dauko, eta euren-dako egitten dogu lan haundixen.

Almazen barrixe dauketzue; oin hobeto?

Bai, alderik be ez dau, lehengo almazena txiki geratu zan-eta. Gaiñera, enpresie haundittu egin da, eta horrei esker jente gehixau dabil lanien; gaztie batez be.

Egunen baten geratuko da almazen hau txiki?

Poztuko nitzake, hori seiñale ona izengo litzake-eta.

NIREBIDAIAHURA/ Ekain Zubizarreta

Kolonbia eta Kuba / 2003ko maiatzetik abuztura arte

Kolonbian, hiri eta herri asko bisitatu zituzten Ekainek eta Jonek: “Popayan, Silvia, Calin... Hainbat hiritan eta herritan izan ginen. Han, distantziak ez dira kilometrotan neurtzen, batetik bestera joateko behar den denboran baizik”. Kolonbian, hiri bakoitzak ezaugarri bereziak ditu: “Popayan hiriburuarri hiri zuria deitzen diote. Silvia, berriz, oso herri polita da. Calin, berriz, salsa musikaren hiria da. Han ikasi nuen nik dantzan egiten”. Joan den astean ere esan genuen Kolonbian ez zutela inongo arazorik izan; hori bai, badaezpada ez ziren inoiz bakarrik ibiltzen: “Behin, bizikleta hartu eta nire kabuz osteratxo bat ematera joan nintzen. Itzuli nintzanean hango lagunak oso arduratuta zeuden. Ezbeharren bat izan nuela pentsatu zuten”.

Ekainen esanetan, Kolonbia oso leku interesgarria da: “Ikusteko moduko lekua da, baina ez dut uste motxila hartu eta nora joan jakin barik ibiltzeko lekua denik. Leku batzuetan komeni da kontuz ibiltzea, badaezpada ere”.

Bi hilabetez praktikatan ibili eta gero, Ekainek eta Jonek Kubarako bidea hartu zuten.

“Guk Kuban gura genituen egin praktikak, baina ez zen posible izan. Kolonbian egonda, baina, etxera etorri aurretik Kubara joatea erabaki genuen. Turista gisa izan ginen Kuban, 13 egunez. Zortea izan genuen: hango jendearekin elkartu ginen, eta Kubaren beste aurpegia ezagutu genuen”. Kubako lagunekin berbaldi luzeak izan zituzten: “Politika kontuen gainean berba egiterakoan konturatu nintzen hango gazteak ez dituela horrenbeste erakartzen sozialismoak, askatasuna mugatzen dielako. Nagusiek, berriz, gogor defendatzen dute; nekazariak batez ere”. Bisitatzeko lekua da Kuba: “Hango jendeak maila kultural ona du, eta gauza on asko dituzte. Hala ere, ezin da ukatu arazoak dituztela”. Kubara joateko inoiz lako dudarik ez izateko esan digu Ekainek. “Baina udan ez, sekulako beroa egiten du-eta!”

XABIER URZELAI



Ekain, Kolonbiako lagun batekin.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?

Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.

Mobiliario
ARENZA- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETABizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroakArrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6-1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

ELKARRIZKETA

MERCEDES ACERA/PSIKOLOGOA

“Gizarteak nagusiekiko dituen aurreiritziak aldatu egin behar ditu”

IKER BARANDIARAN

Mercedes Acera psikologoa donostiarra da, baina azken zazpi urtetan Arrasateko erretiratuen elkarteetara askotan etorri da berbaldiak eta tailerrak antolatzen. Solasaldia egin genuen Mercedesekin.

Noiz eta zelan hasi zinen hirugarren adineko lagunekin lanean?

1997an, Donostiako erretiratuen elkarte baten, oroimenaren gaineko tailerra egiteko eskatu zidaten. Garai hartan Gipuzkoako erretiratuen presidente zenak nire curriculum-a zabaldu zuen, eta orduz gero Gipuzkoan barrena hainbat berbaldi egin ditut. Orduan ez zituzten hainbeste berbaldi antolatzen. Gaur egun, laguntza gehiago dituzte.

Hirugarren adinarekin lotutako zein prestakuntza izan duzu?

EHUn Psikologia ikasi nuen. Geroago, Madrilen portaera aldaketan gaineko masterra egin nuen. Masterrean, geriatrico kontuak ikasi nituen. Goizetan psikologia kontsulta eramaten dut, eta arratsaldeetan erretiratuekin lan egiten dut.

Zein ekimen egiten dituzu?

Batez ere, oroimen tailerrak eta psikologiarekin eta osasunarekin lotutako berbaldiak egiten ditut. Besteak beste, honako gaiak jorratzen ditut: ohitura osasungarriak zahartzaroan, zahartzarora atzeratzea, autoestimua, bikoteen arteko harremanak, lo hartzeko arazoak... Eragiten dieten kontuak. Horien sintomak, eta arazo horiek saihesteko aholkuak eta laguntzak.

Egia da emakumezkoek gizonezkoek baino esku-hartze handiagoa izaten dutela halako ekimenetan?

Bai, emakumeek esku-hartze handiagoa izaten dute, kultura eta hezkuntza jasotzeko zailtasun handiagoak izan dituztelako eta



“Emakumezkoek gizonezkoek baino gogo handiagoa izaten dute ikasteko”

ikasteko gogo handiagoz daudelako. Gizonezkoek lotsa handiagoa izaten dute, eta adin horretan, emakumezkoak eta gizonezkoak banatuta ibiltzen dira.

Zertan lagun ditzakegu?

Batez ere, gizartearen euren dagoen ikuspuntua aldatzen. Gau-

“Hirugarren adinekoekin lan egiteak asko eman dit, asko ikasi dut eurekin”

za asko egiteko gauza dira. Horrez gainera, batzuek aitona-amonei lan mordoa ematen diete, eta ez da horrekin abusatu behar.

Zer eman dizu nagusienekin lan egiteak?

Gauza asko; izan ere, eurekin mordoa ikasi dut, asko.

LABUR

1958ko eta 1951ko kintoak urteko batzarrak antolatzen dabilta martxorako

1958ko kintoek (1937an jaiotakoek) urteko batzarra egingo dute martxoaren 27an. 12:30ean meza izango dute. Horren ostean, txikiteoa eta bazkaria Musakola Hostalean. Interesatuak eman izena lehenbailehen, eta 20 euro ordaindu. Riviere (943 79 10 57).

Bestalde, 1951ko kintoek (1930ean jaiotakoek) martxoaren 6an egingo dute urteko batzarra. Juan Jose Uribarren (943 79 80 08).

1934an jaiotako gizonezkoek eta emakumezkoek urteko batzarra egingo dute

Martxoaren 27an, 1934an jaiotako gizonezkoek eta emakumezkoek urteko batzarra egingo dute. 12:30ean, meza izango dute San Frantzisko elizan. Horren ostean, txikiteoa egingo dute, eta 14:30ean, Udalpe elkartearen bazkalduko dute. Interesatuok Bengoa tabernan eman izena, martxoaren 24a (eguztena) baino lehen. Hamar euro ordaindu beharko dira.


Elikaduraren eta mantenugaien gaineko berbaldia egingo dute Uribarri elkartearen

Martxoaren 18rako (eguna) elikaduraren eta mantenugaien gaineko berbaldia antolatu dute Uribarri erretiratuen elkartearen. 17:00etan izango da, Gipuzkoako Kutxak antolatu du eta Gipuzkoako Erizainen Eskolako kideek emango dute. Erizainek zer elkagai jatea komenigarria den argituko dute.



Abaroa elkartearekin, Peñiscolara

Abaroa erretiratuen elkarteak Peñiscolara antolatu duen bidaiarako txartelak eskuragarri daude oraindik. Elkarteak hiru autobus hartu ditu; beraz, guztira, 165 lagunendako lekua dago. Dagoeneko 140 lagunek eman dute izena. Interesatuak 270 euro ordaindu beharko dituzte. Prezio horren barne egongo dira autobusa, hotela eta jatordu guztiak. /I.B.

 **Gambrinus garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

MADINA ZURAK
Aroztegia


- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

PUB HAIZEA

 arrasate



ARRASATE
Raul Perez
Martxoaren 17an, 12 urte. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
Aitor Lezamiz
Martxoaren 3an, 19 urte. Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Eritz Iparragirre
Martxoaren 14an, 4 urte. Zorionak! Arrasateko aitona-amonak eta izebak.



ARRASATE
Ander Llodio
Martxoaren 13an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Felix Hermosel
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Andoni eta Ikerne.



ARRASATE
Xabi Urzelai
Martxoaren 13an, 25 urte. Zorionak! Goienako lankideak.



ARRASATE
Iratxe Bengoa
Martxoaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Goienako lankideak.



ARRASATE
Juan Murillo
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak! Xabier, Egoitz eta Marlu.



ARRASATE
Iñasi Lizarralde
Martxoaren 10ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxeko txikienak.



ARRASATE
Ander Gonzalez
Martxoaren 11n, 3 urte. Zorionak! Miren, Unai, Asier eta Markel.



ARETXABAETA
Saioa Carretero
Martxoaren 12an, 27 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Jokin Azpiazu
Martxoaren 10ean, 11 urte. Zorionak! Eneko, Eli eta etxeak.



ARRASATE
Aitor Aranzabal
Martxoaren 12an, 13 urte. Zorionak! Gelakideen partetik.



ARRASATE
Queila Coscojuela
Martxoaren 7an, 8 urte. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Mari Jose Aranburu
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Mikel Usobiaga
Martxoaren 12an, 14 urte. Zorionak! Ane, ama eta aita.



ARRASATE
Leire Presa
Martxoaren 13an, 10 urte. Zorionak! Gorka eta Amparo.



ARRASATE
Trini Martin
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak maite zaitugu!

Adi! Argazkiak emateko lekua:
Arrasate:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSEn bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaiazu ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSEn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein izen du argazkian agertzen den musika taldeak?
Arrastoa: hegaztiekin zerikusia du izenak.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Danone jogurtak, askotarikoak
Lauko packa

0,82€ 136 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

IKER ZUGASTIrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iker!
Galderen erantzun zuzena:
1999ko ekaina.

ARRASATEKO HISTORIA

Zela sustraitu zen futbolarekiko zaletasuna

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...' / J. LETONA

Orain hasi eta datozen kapituluetan futbola izango dugu berbagai Arrasateko historiari eskaintzen diogun tarte honetan. Jose Letonaren *Pequeña Historia del fútbol en Mondragón* liburua erabiliko dugu horretarako. Aurreneko kapituluak, Arrasateko futbola zela sustraitu zen kontatuko dugu. Joan den mendeko hasierara jo behar dugu horretarako, 1910era, hain zuzen ere. Letonak kontatzen du zela sasoi hartan Madrilgo bi ikasle gazte Arrasatera etortzen zirenen udako oporretan. Ama Pastora Elosua arrasatearra zuten, eta haren senitartekoen-gana etortzen ziren, udaletxetik gertu zegoen etxe batera. Gonzalo eta Laureano Ortiz Zarate Elosua ziren bi anaiak; Atletico Madrilen sortzaileen artean zeuden biak. Hala, oporrak Aretxabaletako eta Eskoriatzako bainuetxeetan pasatzen zituzten bilbotarren eta madrildarren semeekin elkartu, eta udaletxeko plazan jarduten zuten futbolekin. Sasoi hartan Espainian sartu berri zuten joko berri hura: *foot-ball* esaten zioten. Hala, haiek zela



Club Deportivo Mondragón taldeak izan zituen aurreneko jokalaririk (1913-1916).

'PEQUEÑA HISTORIA DEL FÚTBOL EN MONDRAGÓN'

jokatzen zuten ikusita, arrasatearren artean joko harekiko zaletasuna piztu zen. Haien artean, Ricardo Azkoaga, Jose Antonio Errasti, Adan Iartza... nabarmendu ziren. Guztiak elkartu eta herriko futbol taldea sortzea erabaki zuten: Club

1916an greba orokorra izan zen, eta horren ondorioz, jokalaririk alde egin zuten, lan bila

Deportivo Mondragón izena ipini zioten. 1913a zen. Talde hark 1916ra arte iraun zuen. Etxaluzeko zelaietan jokatzen zituzten partiduetan. San Andres auzoan zegoen Etxaluzeko, gaur egungo Errebuelta eta Doctor Bañez kaleen amaiera aldean.

Etxaluzeko baserrietik sartzen zen futbol zelaira. Honako hamaikakoa zuen Mondragón sasoi hartan: Ildefonso Ugarte atean, Gregorio Ugarte eta Juan Hevia atzean, Santos Zarraoa, Eugenio Resusta eta Gregorio Vitoria erdian eta Francisco Riviere, Francisco Arregi, Jose Barrena, Manolo Elosegi *Shardina* eta Jose Antonio Errasti aurrean. Guztien artean, Ildeonso Ugarte eta Manolo Elosegi *Shardina* tolosarra ziren jokalaririk nabarmenenak. Biak hala biak Gernikara joaten ziren hango Maloste taldea indartzeko, bost pezetaren eta bazkariaren truke.

Edozelan ere, 1916ko urtarri-laren 2an greba orokorra izan zen; maiatzaren 20ra arte iraun zuen grebak. Horren ondorioz, jokalaririk alde egin behar izan zuten lan bila. Taldeak, jokalaririk barik, ez zuten zelaiaren errenta ordaintzako dirurik (500 pezeta urtean) eta taldea desegin egin behar izan zuten.

Bitxikerien artean, aipagarria da Etxaluzeko zelaietan telegrafo poste bat zegoela. Baita behin baino gehiagotan baloia errekarra jausi eta pertika batekin ateratzen behar izan zuten ere.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BAÑERAREN EMAITZAK
Neskek atsedean izan zuten joan den astean. Eta mutilek 9-3 irabazi zioten Kostalera taldeari. Asteburuari begira, berriz, bihar, zapatua, neskek etxean dute partidua, Fumikomiren kontra, 11:00etan. Eta mutilek Jesus Obreroren kontra jokatu dute, kanpoan, 12:00etan.

BARIKUKO ZINEMA
R. Attenborough zuzendarriaren *Gandhi* filma emango dute kultura etxean.

DOMEKAKO ZINEMA
Charles Chaplin-en *Lucas de la Ciudad* filma emango dute. Pelikula mutua da eta zuri-beltzean dago.

KZGUNAREN ORDUTEGIA
16:00etatik 20:00etara zabalduko dute martxoan.



ARTXIBOA

Besteak beste, Manex Agirrek eta Iker Agirrek bertsoan egingo dute asteburuan.

Bertsolari txapelketako bigarren kanporaketa

UBANE MADERA

Iker Agirrek ezin izan zuen parte hartu joan den asteko kanporaketan, gaixorik egon zen-eta. Hala, txanda aldatu egin diote eta bihar, zapatua jokatu du kanporaketa, Andere Arriolabengoarekin batera. Bestalde, gaur, Manex jardungo du bertsoan, Anboto tabernan.

Iluntzean izango da Anbotoko gaurko (barikua) ekitaldia, 20:30ean hasita. Arabako zenbait bertsolari gaztek bertsoaioa eskainiko dute. Hala, Manex Agirrekin batera, Oihane Agirrek, Izar Mendigurenek eta Oihane Pereak parte hartuko dute ekitaldian. Berriz, Iña-

ki Viñaspre ibilko da gai jartzaille lanak egiten.

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Bestalde, joan den zapatuan jokatu zuten Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa. Iker Agirrek parte hartu behar zuen, baina, gaixorik zegoen eta etxean geratu behar izan zuen. Hala, antolatzaileek txanda aldatu diote, eta bihar jokatu du kanporaketa, Andere Arriolabengoarekin batera. Saioa Agurainen izango da, erakusketa aretoan. 20:00etan hasiko da. Honakoek jardungo dute: Irati Andak, Iker Ibarrolak, Alberto Martinezek, Irati Mendigurenek, Andere Arriolabengoak, Markel Bekaresek, Serpio Lopezek, Iosu Ormaetxeak, Iker Agirrek eta Iraia Sasietak.

Elkarri birritan izan da sinadurak batzen herrian

UBANE MADERA

Elkarrik lortu du elkarrizketa foroaren aldeko 100.000 sinadurak batzea. Aramaion birritan izan dira, baina eguraldiak ez die batere lagundu. Hala ere, Elkarriko kide Jose Ramon Elortzak jakinarazi digunez, ia 90 aramaioarrek sinatu dute Elkarriren eskaera.

Joan den asteko eguraldi kaskarrak eraginda, Elkarriko kideak egubakoitzean, hilak 5, berriro izan ziren Aramaion, sinadurak batzen. Baina, beste behin egu-

raldia ez zuten lagun izan, eta uste baino herritar gutxiagoren sinadurak batu zituzten. Ia, 90, Elkarriko kide Jose Ramon Elortzak adierazi digunez. Hori bai, esan digu sinatzera joan zirenek bazutela Elkarriren ekimenaren berri, eta hori inguruko komunikabideei esker lortu dela. Kontuak kontu, oro har, Elkarrik lortu ditu aurreikusitako 100.000 sinadurak. Geurean, 1.500 lortzea aurreikusi zuten, eta 3.245 lortu dituzte. Orain, sinadura horiekin alderdi askoren arteko elkarrizketa foroa sortzeko eskaera eskubidea egingo dute Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Barikuan izan ziren Elkarriko kideak, Bizente Goikoetxea plazan.

EAJk eta hAMAlauk euren asmoen berri eman dute

UBANE MADERA

Zarata larregi barik joan da hauteskunde kanpaina Aramaion. EAJkoek joan den eguenean, hilak 4, izan zuten ekitaldia. Besteak beste, Joseba Egibar izan zen Aramaion. hAMAlauk, berriz, etxetik banatu du baliogabeko botoa eta zenbait salaketa.

Kultura etxean izan zen Joseba Egibar joan den astean. Besteak beste, Espainiara joateak euskaldunendako duen garrantzia azpimarratu zuen bere hitzaldian. Horren harira, Euskal Herriak Espainian izan beharreko lekua gainean berba egin zuen eta Ibarretxeren plana sakon aztertu zuen aramaioarren aurrean, hura aurrera eramatea nahi dute-eta. Eta Udaltzaren ere berba izan zuten. Era berean, Euskadik hobe-

tzen jarraitu behar duelako eskatzen dute botoa EAJkoek. Oro har, Gipuzkoan 100.000 boto ateratzea da EAJren helburua.

HAMALAUEN SALAKETAK

Bere aldetik, hAMAlauk etxetik bidali ditu Bergarako ekimenaren aldeko botoak. Eta, jakinarazi digute Udalaren kontrako salaketa batzuen idatzia ere bidali dituztela. Hiru gauza salatzen dituzte: egindako eskaerei jaramonik ez dietela egin udaletxetik. Bestetik, Udalak ur eta zabor tasak igotzeko ez duela legeak esaten duen ikerketa ekonomikorik egin, eta neurri bariko igoera ezarri duela. Eta hirugarrenik, urtebetez Iñaki Nafarrate bi soldata kobratzen ibili dela, hirigintzako ordezkaritza hartu eta gero. Gaineratu dute hAMAlauk eskatutako txosten juridikoaren berri izan ostean, EAJkoek itzuli zutela dirua.



Jende dezente Emakume Astean

Aurreikusitako moduan egin dituzte emakumeen eskubideen aldeko ekimenak Aramaion. Astelehenean zinemaretoan emakume dezente elkartu zen Las Torpedolevel taldearen antzezlanak ikusteko. Eta, martitzenean, berriz, Rosa Maria Agudok sorginen gainekoak esan zituen kultura etxean. Gaur, barikua, bingoan jokatu dute, eta gero afaria izango dute. Bestalde, esan beharra dago emakumeen aldeko ekitaldi horietan oso gizonezko gutxiak parte hartzen duela Aramaion.

ERRETRATUZAHARRA


Fraideetako
ikasleen
argazki bat

Antzinako eskola garaietara joko dugu oraingo asteko argazkiarekin. 1960koa da. San Viator zaharrean, zelaira igotzeko eskailerak zeuden orduan. Eta hantxe dago aterata argazkia. Agertzen diren umeak bi kurtsokoak ziren. Fraideetakoak. 14 urtera arte ibiltzen ziren ikasten San Viatorren.

Mutiko mordoak agertzen diren arren, gure berriemaileek guztiguztien izenak lortu dizkigute. Hala, goiko ilaran, ezkerretik hasita honako hauek daude: Luis Otadui, Jose M^a Roldan, Patri Etxabe, Atxa, J. Mari Lizarantzu eta Jose Luis Elexpuru.

Bigarren ilaran, honako hauek daude ezkerretik eskumara: Juan Cruz Garai, Angel Ramos, Elortza, Alfredo Villar, Pedro Arizabaleta, Jose Ramon Satrustegi, J. Ramon Alvarez eta Heriz.

Hirugarren ilaran, honako hauek daude ezkerretik eskumara: Juan Ramon Garai, Luis Maria Altube, Jose Luis Heriz (sakristaia), Lazpiur, Enrike Sanz, Carlos Olmedo, Castillo,



Anton Elexpuru, Iñaki Garro eta Xuxo Lemos.

Laugarren ilaran, honako hauek daude, ezkerretik eskumara: Gerardo Morras, J. Ramon Barona, J. Luis Mondragon, Jose Ignacio Zubizarreta, Abasolo Kopi, Felipe Balantzategi,

Alexander Urrutia, Zubia, Luis M^a Vitoria, Jose Luis Talledo eta Artza-mendi. Eta, azkeneko ilaran, behe-behean, honako hauek daude, ezkerretik eskumara: Felix Arkauz, Javier Errarte, Javier Beitia, Armin Isasti, J. Antonio Uribe, Beitia, Andoni Altze-

lai, Gruzeta, J.J. Uriarte, Migel Epelde eta Jesus Ernabide.

Argazkia: Javier Beitia eta Jose Luis Azkarate.
Informazioa: Javier Beitia eta J.L. Azkarate.
Urtea: 1960.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Mojategiko
atletismo
pista

Orain dela hamalau urte, Mojategiko atletismo pisten gainean idatzi genuen ARRASATE PRESSen. Orduan, Mojategin kirol-gune handi bat egiteko proiektua egon beharrean, atletismoko pistak baino ez egitea zen asmoa. Gero etorri ziren beste egitasmoak. Orduan, lursail horretan arrasatear askok baratza zuten. Egun, ez baratzik ezta atletismo pistarik ere.



≈ 1990 Diru faltagatik, orain arte izan diren proiektuak atzera bota dituzte, eta egun, motokroseko zirkuitua dago zelai horretan.



2004 Kirol proiektuaren gainean berba asko egin da. Argi dagoena da Arrasatek gaur egun dituen kirol instalazioak baino hobeak behar dituela.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu jostekak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkia



Amagara

26 egun besterik ez da falta



**GERTATU ZURE AZALA
2004KO ASTE SANTURAKO**

Solariumeko eskaintza berezia

6 saio + 1 doan
42 euro bakarrik



Martxoaren 12tik apirilaren 7ra

Beltzuran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baita pertsona bakoitzaren azalaren sensibilitatearen araberakoa ere.



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 Faxa: 943 78 15 51



Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK
PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI s.l.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora